



2HI-151/09-P03 TR LOIU

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN
BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak maiatzaren 22an Vitoria-Gasteizen egin zuen 2/2013 bilkuran, besteak beste, ondoko erabaki hau hartu zutela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

Loiuko udalerriko "Hiri-antolamendu Plan Nagusia. Testu bategina. espedientearen aldeko txostena egitea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzen baitu eta ondorengo hauetara egokitzen baita: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeko lurralde antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

II.- Uraren arloan:

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2013ko apirilaren 19an, aldeko txostena egin zuen, erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

1. Bakarrik izango da beharrezkoa Horniketa eta Saneamenduaren erakunde kudeatzailearen adostasun-txostena. Horren bidez egiaztatuko du tokiko saneamendurako sareak nahikoak direla aurreikusitako garapenek ekartzen dituzten karga berriak jaso eta tratatzeko, eta garapen berriak hornitzeko baliabide nahikoak daudela.

III.- Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusia

Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak 2013ko maiatzaren 10ean egindako txostenaren zehaztapen lotesleak kontuan hartu behar dira.

IV. Espediente hau behin betiko onartzeko eskumena duen organoari ondokoa bidaltzea: URA-Uraren Euskal Agentziak egindako txostena (I. eranskina) eta Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena (II. eranskina). Agiri horiek ziurtagiri honi erantsita doaz.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 23an.

IDAZKARIA



Izpta.: Tomás Orallo Quiroga